



TXOSTENA
2016



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

AURKIBIDEA

3 AURKEZPENA

6 GURE EKIMENAK

6 Eragin politikoa

8 Giza mobilizazioa eta sentsibilizazioa. Gizarte mugimenduekin eta kolektiboekin aliantzak

18 Generoa

19 Formakuntza

22 Ikerketa

23 Komunikazioa

25 GGKEak eta sektorea indartu. Publikoari arreta

27 NORTZUK GARA

27 Gobernu Batzordea

28 Lan-taldeak

29 Erakundeetan partaidetza

29 Talde Teknikoa

30 GGKEak

30 Lankideak

31 KONTU ARGIAK



AURKEZPENA




Garapenerako gobernuz kanpoko Euskadiko 79 erakundez (GGKE) osatutako kolektibo bat gara eta garapeneko hezkuntzan eta nazioarteko lan-kidetzan dihardugu. 1988tik, garapenerako lankidetzaren kalitate onekoa izan dadin sustatzen aritu gara, hala instituzio publiko eta pribatuetan, nola kide diren GGKEetan. Bestalde, Koordinakundeko erakundeei beren prozesuetan laguntzen diegu, gaitasun politiko eta teknikoak sendotzen ere bai, eta, horretaz gain, gure ingurunean ere eragiten dugu, hainbat alderditan gizartearen

eraldaketan lagundu nahian. Horretarako, gure jardueren ardatz izaten dira, besteak beste, herritarren elkartasunaren kultura sustatzea, desberdintasunak eta pobrezia eragiten dituzten egiturak alda daitezkeen bultzatzea, parte-hartzea sustatzea, eta eztabaida kritikoa piztea gure garapen-eredu patriarkal eta neoliberalak desberdintasunekin eta pobreziaekin duen loturaz. Gure iritziz, sustatu beharrekoak dira demokrazia partizipatiboa, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero-berdintasuna.

Giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatzearen herri pobretuekin batera lan egitea, horixe da gure ustez garapenerako lankidetzak, eta horrela aritzen gara. Prozesuaren oinarria beti dira elkartasuna, elkarrekikotasuna, eskuzabaltasuna eta doakotasuna, eta inoiz ez transferentzia ekonomiko hutsa. Lankidetzak, gainera, beti dakar herri-

tarrak hezteak, sentsibilizatzea eta kontzientziatzea giza garapena oztopatzen duten mekanismoak buruz. Jokabide Kode komun bati jarraituz jokatzen dugu; kode horretan jasota dauden printzipioak eta balioak gidatzen dute gure erakundearen nahiz GGKE kideen jarduna.


Eragin politikoa, salaketa eta mobilizazio soziala, genero-berdintasunarekin, kide diren GGKEek gizarte-eraldaketarako duten gaitasuna sendotzeaz gain, horiexek dira gure erakundearen bi lan-ildo nagusiak, **bost helburutan** zehazten direnak:



Lankidetzarako politiketan
ERAGITEA



Legedia betetzen dela eta politikak koherentzia gordetzen dutela
ZAINTZEA



HERRITARREI JAKINARAZTEA,
modu kritiko eta propositiboan, zerk eragiten duen eta zer ondorio dituen pobreak eta Iparraren eta Hegoaren arteko desberdintasunak, batetik, eta gure gizartearen aberastasuna desberdin banatuta egoteak, bestetik



Gizarte-mugimenduekin aliantzak
SUSTATZEA,
mobilizazioaren oinarri soziala zabaltzeko eta alternatiba pluralak eraikitzeko



Kide diren erakundearen gaitasunak
HOBETZEA,
bakoitzak bere helburuak modu koordinatu eta eraginkorrean eta barne-koherentzia gordez lor ditzan

Batzar Nagusia erabakimen handieneko organoa da, eta aldian-aldian biltzen da, urte bakoitzeko jardun-ildo eta – irizpideak finkatzeko. Lurralde Batzarrak hiru ordezkartzen gobernu-batzarrak dira. Gobernu Batzordeari dagozkio eginkizun betearazleak, eta hark antolatzen eta zuzentzen ditu jarduerak. Horietaz gain, badira zenbait gairi buruzko lantaldeak; besteak beste, eragin sozial eta politikoa, generoa, komunikazioa eta gizarteraldaketarako hezkuntza. Lantalde teknikoaren laguntzaz, aipatutako esparruetan hartutako erabakiak gauzatu dituzte lurralde-ordezkaritzek. Bestalde, bai GGKEei eta bai herritarrei informazioa nahiz aholkua emateko zerbitzua ere eskaintzen dugu.

2001etik, Espainiako GGKEen Koordinakundeko parte gara. 2009an, Eusko Jaurlaritzak Ignacio Ellakuria saria eman zigun garapenerako lankidetzan egindako lanagatik. Araban eta Bizkaian *Euskararen bidean* ziurtagiria daukagu, eta Gipuzkoan, *Zerbitzua euskaraz, Bai Euskarari* elkarteak emanak.



Youtubeko gure kanalean eta webgunean erakundeak 2016an egindako lana laburbiltzen duen bideo bat ikus dezakezu

2 GURE EKIMENAK



Eragin politikoa

Euskadiko instituzio publikoekin nahiz alderdi politikoeekin hainbat ekintza egiten ditugu, lankidetzarako politika garden eta deszentralizatua bultzatzeko, batetik, eta bestetik, gizartearen ongizatea eta kohesioa bermatzen lagungarri den heinean lankidetzarako politikak duen balioa nabarmentzeko:

» Harreman egonkorrak ditugu lankidetzarako politikak egiteko ardura duten eragileekin, bai eta Euskadin ordezkaritza duten alderdi politiko nagusiekin ere. Honako bilera hauek azpimarratzen ditugun: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, hiru foru-aldundietako lankidetzeta-sailen ar-

duradunekin eta Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Udaletakoekin (beste herri batzuenetakoez gain), eta Eusko Legebiltzarrean nahiz aipatutako beste instituzioetan oposizioan dauden taldeekin. Hiru agerraldi egin ditugu: irailaren 30ean Bizkaiko Batzar Nagusietan, non gure erakundeari, lankidetzeta deszentralizatuari eta garapenerako politiken koherentziari buruz aritu ginen; maiatzaren 5ean Gipuzkoako Batzar Nagusietan, errefuxiatuen krisiari buruz lankidetzaren ikuspegitik; eta urriaren 10ean, berriro ere instituzio honetan, Foru Aldundiaren lankidetzeta-politikaz.

» Ekarpinak egin dizkiegu dokumentu hauei, besteak beste: Bilbo, Donostia eta Gasteizko Udalen plan zuzentzaileei nahiz Bizkaiko Foru Aldundiarenari; Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparru estrategikoari; Arabako Foru Aldundiaren Elkartasun eta Lankidetzaren Politiken Esparru Agiriari (Eskutik); Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzen dekretuari; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiari. Azken horri dagokionez, berariazko lantalde bat sortu dugu.

» Ordezkaritza aktibo eta egonkorra dugu partaidetarako eta elkarrizketarako eremu hauetan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorean; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan (eta haren Batzorde Iraunkorreak); Lankidetzako Bilboko Udal Kontseiluan (eta haren Batzorde Exekutiboan), Donostiakoan (eta haren Batzorde Iraunkorreak) eta Gasteizkoan (gaur egun Elkargune deritzon); Gasteizko Gizarte Kontseiluan; eta Elkarrizketa Zibilerako Ma-

hain. Jarraipena egin diegu horien guztien agendei eta jarrera, proposamen eta ekarpen adostuak aurkeztu ditugu.

» Herritarrek eta gizarte-mugimenduek parte hartu eta ekarpenak egin ahal izan ditzaten instituzioek sortutako hainbat prozesu, eremu eta bitartekotan aritu gara.

» Gaur egun lankidetzaren esparruan indarrean dagoen legedia Euskadiko instituzio publiko nagusietan betetzen ote den aztertu dugu, eta haien aurrekontuak ere bai. Gainera, Euskadiko instituzioek garapenerako laguntza ofizial gisa ematen duten ehunekoa kalkulatzeko sistema homogeneo bati buruzko eztabaidari ekarpenak egiten jarraitu dugu. Gure helburua, alde horretatik, modu malgu batean nazio-produktu gordinaren % 0,7 izan dadin nazioartean adostera iristea da.

» Elkarrizketak izan ditugu Eusko Legebiltzarreko taldeekin, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legean (maiatzean onartua) lankidetzaren eredu sartuta egon zedin.

Euskaditik mundura: 9 konpromiso garapenerako lankidetzaren politika hobetzeko 2016ko autonomia-hauteskundeak

"Mundua 1.300 milioi gora pertsona bizi dira egunero euro Behar berri sartu gabe"

1. Hauteskundeetara aurreratzen diren alderdi politikoei aurre hauteskunde programetan euskal lankidetzaren politikak defendatzea eskatzen diegu.
2. Erakunde publikoaren aurrekontu oso bateratuaren %0,7 nazioarteko lankidetzaren bileratzea eskatzen diegu.
3. Nazioarteko lankidetzaren politika publiko sendotu eta egonkorra aldarrikatzen dugu gorabehere politikotatik, eta, gizarte zibil antolatuekin batera, bere berariztasunetik eta bako erantzukizun, aldarrikatzen erakia.
4. Gizarte eraldatzeko hezkuntzaren aldetik aurreratu egitea esparru hauetara: komunikazioa, prestakuntza, kultura, mobilizazioa eta eragin politikoa.
5. Gizarte zibilko erakundeek gaitasunak sendotzeko prozesuak bultzatzea ematea. Honek, berrikuntza, prestakuntza, eragintza eta elkarrekin lan egitea bultzatzen ditu, erakundeen irabazkortasun-planak eginez.
6. Gobernuak aldarrikatzen duen garapenerako politiken koherentzia bultzatzea, pobrezaren eta desberdintasunen aurkako borroka kausarako ikuspegi bateratua jorratzeko eta ingurumenaren aldetik erantzukortasunak jokatuz.
7. Gizarte zibilaren parte-hartzea erakunde aldetik aurreratu egitea eskatzen diegu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan indartuz, esaterako.
8. Garrantzitsua eta kontu erabiltzen aldetik konpromisoa eragintza dugu lankidetzaren politikaren detaliak garatzen diren bitartean ulertzen izan daitezkeen.
9. Indarren dagoen legeria (Garapenerako Lankidetzaren buruzko Euskal Legea eta Herrialde Paganetarako Justizia eta Elkarretarako Gidatza) berritu dela argi jartzen duen konpromiso bat eskatzen diegu.

Hauteskunde hauek, alderdi politikoei honako alderdi luzeak pertsona eta aurreko beharrek, lehenetsu izan daitezela, era berean, nazioarteko lankidetzaren lankidetzaren konpromisoak bete ditzatela. Giza eskubideen bermeak globalak izan behar du.

www.ongitxak.org
#ElkartasunBakatu2016



Euskadiko hauteskunde autonomikoak zirela eta, alderdi politikoei lankidetzarekiko konpromisoak har zitzaten estrategia bat taxutu dugu:

» 2012-2016 legegintzaldiko lankidetzaren politikak baloratu eta ateratako ondorioak Eusko Jaurlaritzari helarazi dizkiogu.

» Hauteskundeetara aurkeztutako alderdi politikoei gure dokumentu bat aurkeztu diegu, *Euskaditik mundura: 9 konpromiso garapenerako lankidetzaren politika hobetzeko* izeneko, eta eskakizun haiek herritarrei jakinarazi dizkiegu.

» Sareen Sareak – Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala – argitaratutako *Hauteskunde autonomikoetarako 16 proposamenak* agiria prestatzen parte hartu dugu; agiri hori ere aurkeztu zaie alderdi politikoei.

Giza mobilizazioa eta sentsibilizazioa. Gizarte mugimenduekin eta kolektiboekin aliantzak

Herritarrengan elkartasunaren kultura sustatu eta gure gizartea eraldatu nahian, hainbat mobilizazio antolatu ditugu, beste kolektibo batzuek sustatutakoak babes-tu, eta sentsibilizazio-jardunaldiak edo –jarduerak egin:

» Urriaren 17a Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta, *Zero pobrezia* kanpainaren barruan, pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituzten arrazoiak salatu ditugu, bai eta TTIP hitzarmenak (Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoko hitzarmena) ekarriko dituen ondorioak ere. *TTIP Bizi ala irentsi: ¿te lo vas a tragar?* lelotzat hartuta, zenbait kolektibok bat egin dugu Pobreziaren Aurkako Astearen. Urriaren 13an, kale-ekimen bat egin dugu Donostian, programazioaren eta erreibindikazioen berri emateko eta parte hartzera gonbidatzeko.


Arabara, urriaren 17an, elkarretaratze bat antolatu dugu Gasteizen. Urriaren 19an, Cadena Ser kateko Iker Armentia kazetaria moderatzaile zela, solasaldi bat izan da, Gasteizen, *Bizi ala irentsi: ¿te lo vas a tragar?* izenburupean, eta hiru hizlarik hartu dute parte: Graciela Rodríguez (Brasilgo Instituto Equit), Unai Aranguren (EHNE-Vía Campesina) eta Beatriz Plaza (Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia, OMAL). Bestalde, zenbait tailer eman ditugu Gasteiz, Audio eta Amurrioko ikastetxeetan, pobrezia eta desberdintasunei, alternatibei eta proposamenei buruz, *Zein da zein?* eta *Zero pobrezia* kanpainaren barruan. Adsis Fundazioak eta Manuel Iradier Elkarte Afrikanistak ere hartu dute parte, eta zeinek bere proiektuetako eta bizipenetako ekarpenak egin dituzten.





Bizkaiko jarduerak hiru elkarteren laguntzarekin antolatu ditugu: REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea), EAPN Euskadi (Pobreziaren eta Giza Bazterketaren aurkako Europako Sarea) eta Euskal Herriak TTIPari EZ plataforma. Urriaren 16an, bizi-martxa erreibindikatio bat antolatu dugu Bilbon, eta girotzeko, bizi-taxi musikal bat eta *photocalla* izan ditugu, parte hartu duen jendeak argazkiak atera zitzaizkien. Urriaren 17an, hitzaldi bat antolatu dugu, *TTIP: ¿te lo vas a tra-gar?*, hori ere Bilbon; Radio Euskadiko Begoña Yebra kazetariak egin ditu moderatzaile-lanak, eta hiru lagun izan ditugu hizlari: Graciela Rodríguez (Brasilgo Instituto Equit), Ekaitz Canceleda kazetaria (TTIParen negoziazioei Bruselatik jarraipena egiten espezializatua) eta Laura Ruiz (Euskal Herriak TTIPari EZ plataforma).

Gipuzkoan, jarduerak Zero *pobrezia* plataformaren bidez antolatu dira; 5 plataforma dira guztira (Eibarkoa, Debagoienakoa, Bidasoakoa, Donostiakoa eta Zarauzko elkartasun-taldea). Urriaren 14an, Donostian ohiko bizi-martxa erreibindikatioa egin da, eta girotzeko, *Txi-ta Sound System* eta *Zas* antzerki-taldea izan ditugu. Urriaren 15ean, bat egin dugu *Bidezko Merkataritzaren aldeko Donostiako Jardunaldiarekin*; besteak beste, merkataritza aserako itunei buruzko edukiak landu dira. Urriaren 17an, Kresala Zineklubarekin elkarlanean, zine forum saio bat antolatu dugu Donostian *El lugar de las fresas* film dokumentalarekin eta filmaren zuzendari Maite Vitoria Daneris-ekin. Urriaren 20an, mahai-inguru bat antolatu dugu Donostian, *Consecuencias de los tratados transnacionales en nuestras vidas: aprendizajes del Sur* izenburupean, eta ordukoan bi lagun izan ditugu solasean: Juan Ramón Mariño (ATTACeko aktibista) eta Denia Mejía (Eusko Jaurlaritzaren giza eskubideen defendatzaileen programa). Hala ere, Donostiako Zero Pobrezia plataformak urte osoan zehar beste-lako ekimenak burutu ditu: Abordaia, Lilaton, barne formakuntza...



» *Lankidetza eraldaketarako* kanpainaren helburuetako bat da herritarrei erakustea Euskadin lankidetzaren esparruan diharduten erakundeek milaka pertsonaren bizimodua hobetzen laguntzen dutela, herritar horiek berek egindako ekarpenei esker. Eta beste helburu bat da herritarrak ohartaraztea zeinen premiazkoa den lankidetza batik bat krisi-egoeretan, eta, azken batean, lankidetza politika publiko gisa garrantzitsutzat jotzea. Ildo horretatik, beste bideo bat egin dugu bi lagun hauen partaidetzarekin: José Ángel Cueda (Gasteizko alkate ohia) eta Vera Samudio (Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuitaren Kolonbiako saileko arduraduna).

» Bestalde, *Zein da zein?* kanpainarekin jarraitu dugu. Oro har gizarteari zuzendutako sensibilizazio – eta komunikazio-kanpaina bat da, eta helburua du herritarrei azaltzea, modu ulergarri eta pedagogikoan, zer-nolako inpaktuak dituen sistema neoliberal eta patriarkalak bai mundu mailan eta bai toki mailan, inpaktu

Gure **webgunean** eta **Youtubeko kanalean** ikus-entzunezko kanpaina horretako bideoak ikus ditzakezu. Erakusketa bat ere badu kanpainak, eta hura ikusteko, sartu **webgunean**

horien arduradun nagusiak identifikatzea, eta zenbait jardunbide-estrategia proposatzea.

Migratzea ez da delitua izeneko bideoa eman dugu argitara, munduan zer migrazio-mota gertatzen diren eta haien zergatiak aztertzen dituen, eta zenbait lekutan proiektuatu da, hala nola Donostiako *Giza Eskubideen Zinemaldian*, Gasteizko *Errefuxiatuak, eskubiderik gabeko pertsonak. Zer egin dezakegu?* jardunaldian, Bilboko *Ongi Etorri: Migratzea ez da delitua* jardunaldian, eta *Zinema Ikusezinen Nazioarteko 8. Jaialdian*.

Unitate didaktiko bat egiten hasi dugu, kanpaina horretako materialak erabil daitezen hezkuntza formalean nahiz ez-formalean, 15-18 urte bitarteko gazteekin. Ekimen hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren agiri batean ere txertatu dugu, GGKEek DBHko nahiz Batxilergoko ikasleentzat dituzten hezkuntza-baliabide eta – materialen zerrendan.



Pobrezia eta desberdintasunak zeinek sortzen duen jakiteko, eskanea ezazu QR kode hau, edo jo webgune honetara:
www.iniciativaquiensquien.org



» *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio-jardunaldia antolatu dugu Donostian, maiatzaren 27an, lankidetzaren balioa nabarmentzeko, herritarrei Hegoaldeko herrialdeetako errealitateak gerturatzeko eta GGKEen lana ezagutarazteko. Solasaldi formatua izan da, eta *Zergatik jarraitu lankidetzaren alde borrokan?* izenburupean, parte hartu dute Garbiñe Biurrun juristak, Aizpea Goenaga aktoreak, Mikel Aramendi kazetari eta filologoak, eta Vera Samudio aktibista eta abokatu kolonbiarrak, moderatzaile-lanetan ETBko kazetari Juan Carlos Etxeberria zela, eta girotzen, berriz, *Easo* abesbatzako *Araoz* gazte taldearen emanaldia eta Nerea Elustondo eta Aitor Mendiluze bertsolariak. Jardunaldia aurkezteko prentsaurrekoa maiatzaren 24an izan da.

» Maiatzaren 12an, *Gazteentzako azokan* hartu dugu parte, Gasteizko Udalak antolatua, lankidetzaren eta GGKEak gazteei gerturatzeko.

» Azaroaren 3an, Agurainen, *TTIP: ¿te lo vas a tragar?* jardunaldia izan da, gure erakundeak antolatua, TTIParen moduko merkataritza askerako itunek Arabako lehen sektorean zer-nolako ondorioak izango lituzketen gogoeta egiteko, eta kolektibo, erakunde eta ekoizleen artean aliantzak sortzeko. Jardunaldi horretan, hiru lagun hauek hartu dute parte: Adoración Guamán (lanaren eta gizarte-segurantzaren zuzenbideko irakaslea Valenciako Unibertsitatean, TTIParekin lotutako gaietan aditua, eta *TTIP: el asalto de las multinacionales a la democracia* liburuaren egilea), Unai Aranguren (nekazaria eta *Vía Campesina* eta EHNEko kidea) eta Laura Ruiz (Euskal Herriak TTIPari EZ plataformako kidea).



» Azaroaren 16an Arabako hiruburuan beste sentsibilizazio-jardunaldi bat egin dugu *Gasteiz en conexión: joan-etorriko istorioak mundu globalizatu batean*, herritarrei erakutsi nahian zer lotura dauden gure gizartearen eta herrialde pobretuen artean. Hauek hartu dute parte: Justine Masika (Kongoko Errepublika Demokratikoko Ekialdeko emakumeen giza eskubi-deen aldeko aktibista eta *Synergie des Femmes pour les Victimes des Violences Sexuelles* erakundeko koordinatzailea), Ana Ribacoba (*Mugak zabalduz* Greziarako karabanako partaidea), José Ángel Cuerda (Gasteizko alkate ohia) eta *12 nubes* ekimen parte-hartzaileko gazteak. Moderatzaile – eta aurkezle-lanetan ETBko kazetari Juan Carlos Etxeberria aritu da, *Harresian Zulo* taldeak musika jarri du, eta *Ilustrados* kolektiboak (Arabako marrazkilari eta ilustratzaileen elkarte) kontaketa grafikoa egin digu.

» Amurrioko Udalarekin elkarlanean, *Amurrioko XVI. Azoka Solidarioa* antolatu dugu, maiatzaren 20an; eta urriaren 21ean, berriz, *Laudiokoarekin* elkarlanean, *Laudioko X. Azoka Solidarioa*, Pobreziaren Aurkako Astearen barruan. Bi ekimen horiek herritarrei elkartasuna eta lankidetzaz egutegia dute helburu.



Helburu berak dituzten beste gizarte-mugimendu eta – eragile batzuekin ere egiten dugu lan sarean, horrek ekintza gehiago egiteko eta gehiago eragiteko aukera ematen baitigu:

- » Mewando Palestinarekiko Elkartasun Sareko partaide gara. Euskal gizartea Palestinaren okupazioaz sentsibilizatzearen alde dihardu sare horrek, eta egin dituen ekintzen artean, hauek azpimarratzen ditugu: Mar Gijónek idatzitako *Historias del movimiento de mujeres en Palestina* liburuaren aurkezpena Donostian eta Bilbon, Nakba Egunean (maiatzaren 15ean); *Emakume Zinemagile Arabiarren III. Erakustaldia* (ekainaren 1ean eta 2an, Donostian); eta Palestinako Apartheidaren Harresiaren aurkako Nazioarteko Eguneko kontzentrazioa (azaroaren 9an, Bilbon).
- » Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako partaide gara. Hainbat gizarte-mugimenduk eta sindikatuk osatzen dugu plataforma hori, krisi ekonomikoak hartaratuta, jardun politiko eta instituzionalaren lehentasunak aldarazi nahian, pertsonak merkatuaren gainetik eta lanak kapitalaren interesen aurretik egon behar dutelakoan. Plataforma osatzen dugunok Karta hura adostu dugu, gure ekonomia eta baliabideak herritarren zerbitzura jartzeko, eta jende guztiak bizibaldintza duinak izan ahal ditzan, oinarrizko eskubide sozialak aitortu eta gauzatu.
- » Euskal Herriak TTIPari EZ plataformaren helburua hitzarmen horren negoziazioei ja-

rraipena egitea da, eta herritarrei hitzarmenaren edukien eta mehatxuen berri ematea. TTIPari ez ezik, beste bi hitzarmen ere erreparatu die: CETA hitzarmenari, Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko merkataritza askerako akordioa, urriaren 30ean sinatua; eta TISA hitzarmenari, zerbitzuen merkataritzari buruzko nazioarteko akordioa, Munduko Merkataritza Antolakundeko 23 estatu negoziatzen ari direna. Alde horretatik, zenbait sentsibilizazio-hitzaldi eta mobilizazio egin dira; adibidez, azaroaren 5ean, hiru hiriburuetan, lelo honekin: *TTIP/CETA ez, herriek erabaki! Gure eskubideak eta gure lurra defenda ditzagun*. Gipuzkoako Euskal Herriak TTIPari EZ plataforman ere hartzen dugu parte.

- » Ekain Sarearen parte ere bagara. Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareen plataforma da Ekain, eta erakunde hauek osatzen dute, gure erakundeaz gain: REAS Euskadi -Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sarea-, EAPN Euskadi -Pobreziaren eta Giza Bazterketaren Aurkako Europako sarea Euskadin-, Harresiak Apurtuz -etorkinen aldeko Euskadiko GKEen Koordinakundea-, Gizatea -Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte-, eta Hirekin -Euskadiko gizarte-ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkarte-. Ekain Sarearen helburua gizarte inklusiboago bat sustatzea da, eta, horretarako, ekitatean, elkartasunean eta parte-hartzean oinarritutako politikak eta balioak bultzatzen ditu.



azaroak 5 noviembre **mobilizazioak**

bilbo 13:00 kalejira-unamuno plaza 17.30 manifestazioa-plaza eliptikoa
donostia 17:00 manifestazioa-bulebarra
gasteiz 12:00 kalejira-virgen blanca
iruñea 13:00 manifestazioa-bus geltoki zaharra

HERRIEK ERABAKI!
*defendamos nuestra Tierra
y nuestros derechos!*



- » Mugimendu feministarekin elkarlanean aritzen gara. Zehazki, martxoaren 8ko Bizkaiko Koordinadora feministan parte hartu dugu (Emakumeen Nazioarteko Egunean), lelotzat *Feministok iraultzarako prest!!! Juntas, diversas, enREDadas* genuela; eta azaroaren 25eko Bizkaiko Koordinadora feministan ere bai, (Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Egunean), lelotzat *Haserre gaude! Estamos organizadas. Aurrean gaituzue* hartuta. Donostian, Emakumeen Etxearekin ere batzen gara, eta, haiekin batera, martxoaren 8aren harira Lilaton emakumeen herri-lasterketan parte hartu dugu, bai eta azaroaren 25eko manifestazioan ere.
- » Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako lantaldeak aurrera jarraitu du Gipuzkoako EHUren unibertsitate-campusean espazio misto bat sortzen, kanpoko eragilez (nagusiki GGKEz) eta unibertsitate bertako eragilez



osatua. Helburua erakunde horretan eragitea da, aldaketarako agente soziala ere baden heinean, eragile nagusi bihurtu dadin, eta herritarrengan pentsamendu kritikoko korrante baten buru bilakatu. Jardunbide egokien eta gomendioen gida bat prestatzen aritu gara, espazioak sortu ditugu, eta orain arte egindakoak balorazio positiboa izan du. Bestalde, unibertsitate kritiko eta konprometituago baterantz jotzeko behatoki bat sortzeko lanean urratsak egiten jarraitzen dugu.

- » Gipuzkoako SOS Arrazakeria eta medicusmundi gipuzkoa taldeekin batera, eta beste kolektibo sozial, elkarte eta GGKE batzuen laguntzarekin, *XX. Martxa Antiarrazista* antolatzen lagundu dugu. Martxoaren 20an izan da, Donostian, eta immigratzaileen eskubideak aldarrikatu ditugu martxa haren bidez, *Hola refugiados/as, ongi etorri donostiarraK!* lelopean.



- » Donostiako Udalarekin eta beste kolektibo batzuekin elkarlanean, *Donostiako XIV. Giza Eskubideen Zinemaldian* hartu dugu parte, apirilaren 15etik 22ra.
- » Desazkundera eta Bizitze Ona taldean parte hartu dugu. Talde horrek 10 erakunde baino gehiago biltzen ditu, eta, horiez gain, desazkunderaren aldeko proiektuetan toki-mailan diharduten beste hainbat erakundek ere hartzen dute parte. Bilbon ekainaren 3an egindako topaketan, *Desazkunderaren eta Bizitze Onaren V. Topaketa*, dokumentu hau aurkeztu da: *Euskal Herritik kolektibotasunean eraikiz: bizi estilo jasangarrietan oinarritutako gizarte justu eta bidezko baten eraikuntzarako analisi eta aldarrikapenak*.
- » Garapenerako GKEen Espainiako Koordinakundeko kide gara. Haren lanari jarraipena emateaz gain, parte hartu dugu XXXIV. *Ohi-ko Batzar Orokorrean* (apirilaren 7an, Madrilen), *Zero Pobreziaren Urteroko Topaketan* (maiatzaren 28an, Madrilen), eta beste bilera batean (irailaren 17an, Madrilen). Bestalde, *Erkidegoetako Koordinakundeen Urteroko Topaketan* ere izan gara (azaroaren 25etik 27ra, Valentzian). Azkenik, *Erkidegoetako Koordinakundeen Taldearen bilera* parte hartu dugu ere (martxoaren 5ean, Madrilen).
- » Hainbat manifestu, kanpaina eta ekimenekin bat egin dugu. Besteak beste, Amnistia





Internazionalaren *Abegitsua naiz*. Yo acojo kanpainarekin; CEAREK EBren eta Turkiaren arteko hitzarmena salatzen egindako kanpainarekin; Saharako herriaren aldeko *España no descoloniza* manifestuarekin; eta Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialisten manifestuarekin: *Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala: erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz*.

- » Azaroan, Batekin gunearen berri emateko bileran izan gara. Araban boluntarioria eta parte-hartze soziala sustatzeko agenzia da Batekin, eta horixe du helburu, hain zuzen: boluntarioria sustatzea eta sendotzea.
- » Errefuxiatuei eta pertsona migratuei elkartasuna erakusteko eta haien egoera salatzeko plataformetan parte hartzen dugu:

Arabán, Gasteiz Irekia ekimeneko kide gara. Arabako hiriburuan egin diren jardueren artean, hauek azpimarratuko genituzke: *Errefuxiatuak, eskubiderik gabeko pertsonak: zer egin dezakegu?* jardunaldiak (apirilaren 18tik 21era); errefuxiatuen kanpaleku baten irudikapena eta manifestazioa (ekainaren 18an); *Mugak zabalduz* Greziarako karabanari babesa (uztailean); eta manifestazioa eta kaleko ekimen bat (abenduaren 17an), Migratzaileen Nazioarteko Egunaren harira, hiriko beste sare eta kolektibo batzuekin batera.



Ecuador Etxea



Bizkaian, Ongi etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataforman parte hartzen dugu. Bilbon egindako ekintzen artean, hauek nabarmenduko genituzke: manifestazioa, pertsona migratuen eta errefuxiatuen eskubideen aldeko Europako martxaren harira (otsailaren 27an); kontzentrazioa (martxoaren 16an) eta ekintza (apirilaren 23an), EBren eta Turkiaren arteko hitzarmenaren aurka; kontzentrazioa, Europako Egunaren harira (maiatzaren 9an); manifestazioa, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunaren barruan (ekainaren 20an); *Mugak zabalduz* Greziarako karabanari babesba (uztailean); eta 2017ko apirilean Gernika bonbardatu zuteneko 80. urteurrena delata, hura gogoratzeko ekimena antolatze lanak.

Gipuzkoan, Gipuzkoa Solidarioaren eta Ongi etorri Errefuxiatuak Gipuzkoa plataformaren partaide gara. Donostian antolatutako jardueren artean, hauek azpimarratuko ditugu: kontzentrazioa eta manifestazioa, Asiloaren eta Babesaren Nazioarteko Egunaren harira (ekainaren 19an); kontzentrazioa *Elkartasuna errefuxiatuekin! Errespetua asilo-eskubideari!* lelopean (maiatzaren 28an); 2017ko Hegoaldera Karabana ekimeneko jarduerak prestatzeko lanak; eta Tarajal hondartzan eraildako urteurrena gogoratzekoak.

Generoa

Gure jardun guztian zeharka genero-ikuspegia bermatuta dagoela zaintzen dugu, arlo horretan instituzio publikoekin aritzen gara, eta GGKEak eta beste gizarte-eragile batzuk gai hauetan prestatzen eta bultzatzen ditugu:

- » Erakundearen Genero Politikari jarraipena eman diogu, eta bete dadin zaindu dugu.
- » Instituzio publikoen hainbat dokumenturi egin dizkiegun ekarpenek genero-ikuspegia txertatua duela bermatu dugu. Gainera, genero-berdintasunari buruzko gure iritzi eta jarreraren barne-agiri bat egiten hasita gaude, eta han bilduko ditugu guk, erakunde gisa, instituzioen dokumentuei ekarpenak egiteko geure egin behar ditugun irizpideak.
- » Gure erakundeko lantalde guztietan genero-gaietarako bitarteko bat egon dadin mekanismoa sortzen jarraitzen dugu, Koordinakundeko gune guztietan egon dadin beti norbait dinamiketan, dokumentuetan eta jardueretan genero-berdintasuna zainduko duena. Oraindik ez gara mekanismoa aplikatzera iritsi, aurrena erakundearen iritzi edo jarreraren barne-dokumentua amaitzea egokiena delakoan.
- » Gure erakundeak antolatutako prestakuntza-saioetan genero-ikuspegia txertatu dugu, eta generoari buruzko prestakuntza-saioak ere antolatu ditugu berariaz, GGKEentzat eta gure erakundearen aritzen diren pertsonentzat.

- » Bestalde, barne-komunikazioko jardunean nahiz kanpo-komunikaziokoan ere txertatu dugu genero-ikuspegia, dela komunikazio horiek egiteko ikuspegiaren bidez, dela komunikazioen edukien bidez.
- » Emakumeen giza eskubideen eta genero-berdintasunaren defentsan aritzen direnen sareekin aliantzak sendotzen jarraitu dugu. Horregatik, aktiboki hartu dugu parte martxoak 8ko eta azaroaren 25eko Bizkaiko Koordinadora feministetan, bai eta Emakumeen Mundu Martxak antolatzen dituen jardueretan ere.



Formakuntza

Kide diren GGKEek zer premia dituzten haztatu ondoren, eta instituzio publikoek nahiz lankidetzako beste eragile batzuek zer eskaintza dituzten aztertu ostean, prestakuntza-saio hauek jarri ditugu abian, erakundeen jarduna eta eragina sendotzeko:

- » Urtarrilaren 28an, Bilbon, *Zaintza eta pre-soia 2.0. Poletika* ikastaroa antolatu dugu. Lara Contreras eta Thai Jungpanich izan dira irakasleak, biak Oxfam Intermón erakunde-koak. Helburua izan da alderdi politikoek agintutako konpromisoak jarraipena egiteko tresna hori ezagutzeko eta Euskadiko hauteskunde autonomikoetara molda zitezkeen ikustea.
- » Apirilaren 8an, Bilbon, gizonezkoek gure erakundeetan erabiltzen dituzten botere-dinamika maskulinoei buruzko tailer bat izan da. CHICO kolektiboak eman zuen tailerra (Euskal Lankidetzako Berdintasunerako Gizonen Kolektiboa), eta helburua gure genero-lantaldearen eta kolektibo horren arteko harremana areagotzea eta batera jarduteko sinergiak sortzea izan da.
- » Maiatzaren 11n, Bilbon, *Ongi etorri: migratzea ez da delitua* jardunaldia antolatu dugu, beste erakunde hauekin batera: CEAR Euskadi, Gernika Gogoratuz, Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia eta EHU. Jardunaldi horretan, hainbat eremutako testigantzak eta informazioa jaso ditugu, gai horri buruz Europako instituzioek eta gobernuak idatziz egindako salaketak aztertu, eta kale-ekimen errebindikatibo eta deigarri bat egin dugu.





» Ekainaren 1ean, EHUrekin batera, jardunaldi hau jarri dugu abian, Donostian: *Garapen iraunkorreko helburuak: Euskadiko garapeneren eta lankidetzaren agendan izan ditzaketen eraginak*. Helburua garapeneren agenda berriaren ikuspegi feministatik eta genero-ikuspegitik sakontzea izan da, eta hauek hartu dute parte jardunaldian: Priya Álvarez, (NBE Emakumeak), Begoña San José (*Fórum de Política Feminista*) eta Luisa Gil (*La Mundial* kolektiboa).

» Ekainaren 8an eta 9an, Bilbon, ikastaro hau antolatu dugu: *Garapenerako esku-hartzeen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko modua hobetzen zeharkako ikuspegiaren aplikazio praktikoaren bidez*. Kalidatea erakundeak eman du ikastaroa, eta xedea helburu horretan sakontzea izan da, batik bat generoaren zeharkakotasunean.

» Irailaren 20an, Gasteizen, saio hau izan dugu: *Nola erantzun emozionalki, krisialdiak GGKEetan eragin dituen maila pertsonal zein erakunde gisako ondorioetara?* Norgara erakundeak gidatu du saioa, eta helburua izan da ikastea nola egin aurre edo nola kudeatu erakundeetan (lan-kontuetan nahiz maila pertsonalean) azken urteotan sektore honetan egin diren murrizketen ondorioak.

» Irailaren 27an eta 28an, Bilbon, ikastaro praktikoa antolatu dugu: *Nola handitu laneko eraginkortasuna Europako funtsekin. Kontratuaren kudeaketa*. Arturo Sanabriak eta Inés Royo Aspak eman dute ikastaroa, eta Europako lankidetzaren funtsak lortzeko prestakuntza-ildoaren jarraipena izan da nolabait.

» Urriaren 26an eta 27an, Bilbon, Generoa eta antolaketa kultura jardunaldia izan dugu, Natalia Navarro zela gidari, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak batera antolatuta. Helburua GGKEen erabaki-organoetara antolaketa kultura kontzeptua eta haren garrantzia helaraztea izan da, berdintasunaren aldeko aldaketa gerta dadin.



» Azaroaren 29an eta 30ean, Gasteizen, ikastaro hau antolatu dugu: *Garapen – arlorako komunikazio-eredu berriak: parte-hartzea eta berrikuntza*. GGKEetan eta lankidetzan komunikazio-eredu berriak txertatzen hastea izan da helburua, eta Xosé Ramilek eman zuen ikastaroa, komunikazioan, marketing sozialean eta herriarren parte-hartzean aditua.

Gure erakundetik kanpo antolatutako beste prestakuntza-saio batzuetan ere hartu dugu parte, beste eragile batzuek gonbidatuta:

» *Garapenerako lankidetzan hastapena* ikastaroa (otsailaren 5ean, Donostian) eta *Etorkizun erki-de berria: 2030 Agenda eta garapen iraunkorren helburuak* nazioarteko jardunaldiak (apirilaren 20an eta 21ean, Gasteizen), lehena Mugarik Gabeko Ingeniaritzak antolatua, eta bigarrena Unesco Etxeak.

» Emakunde antolatutako tailer bat aztertzeko, hirugarren sektoreko eta beste gizarte-erakunde batzuekin batera, nola txertatu 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako (otsailaren 11n, Bilbon); *Garapenerako estrategia positiboak: eredu nagusiari aurre egitea sexu – eta genero-dibertsitatearen bidez* jardunaldiak, Bilboko Udalak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatua (martxoaren 14an eta 15ean, Bilbon), eta horretan sakontzeko tailer espezifikoak, martxoaren 16an; EHUren Lankidetzaren Bulegoak antolatutako *Garapenerako lankidetzaren mintegia* (maiatzaren 11n, Gasteizen); eta lankidetzaren eremuko boluntariotzari buruzko zenbait hitzaldi Deustuko Unibertsitatean eta EHU-n, Unikide programaren baitan (programa horren parte ere bai baikara).



» *Nola hobetu dezakegu Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak eta sareak Europako programetan sartzea?* jardunaldiak (azaroaren 2an) eta horrekin lotutako tailerra (azaroaren 3an), bi-biak Sareen Sareak antolatutak (Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala), Bilbon, EBN Euskadik duen ordezkariarekin hirugarren sektore sozialeko erakundearen proposamen zehatzak lantzeko; *Maskulinitatea eta giza garapenerako II. topaketa* (azaroaren 18an, Bilbon), CHICO kolektiboak (Euskal Lankidetzaren Berdintasunerako Gizonen Kolektiboa) eta Birbana erakundeak antolatua; eta *Genero-indarkeriaren aurkako Estatuko VIII. jardunaldiak* (azaroaren 25ean eta 26an, Donostian).

Ikerketa

Lankidetzaren sektorearekin lotutako gaiei buruzko zenbait ikerketa sustatu eta egin ditugu, sektorea sendotu eta hobetzen lagundu nahian:

- » 2010etik, kide diren GGKEei urtero egiten diegu inkesta bat, haren bidez bildutako datuekin jakiteko zer-nolako eragina duen erakundeentzako funtsak murriztu izanak haien proiektuetan (garapenerako lankidetzak – eta hezkuntza-proiektuak), antolaketa-egituran eta etorkizuneko planetan. 2015eko datuak bildu ostean, txosten bat argitaratu dugu, *Krisi ekonomikoaren eragina lankidetzan Euskadin 2015ean*, eta hainbat erakunderi aurkeztu: Koordinakundeko kide diren GGKEei, instituzio publikoei eta hedabideei, azken hori gosari informatibo baten bidez, uztailaren 27an, Bilbon.
- » 2016an, *Urrats bat gehiago* gogoeta-prozesua amaitu dugu, bi urte lehenago hasia. Batzar Nagusian onartu da oinarrizko dokumentua, euskal lankidetzaren ikuspegiaz, eragileez, lankidetzak-ereduaz eta bitartekoez dugun jarrera adostua biltzen duena. Gogoeta-prozesuan ateratako zenbait ondoriok, alabaina, azterketa sakonagoa eta adostasun handiagoa behar dute, eta, horregatik, 2017an, zenbait lantaldek ardatz horietan sakontzen jarraituko dute.
- » Beste ikerketa bati ekin diogu aztertzekeoa zenbateraino betetzen den koherentzia-

printzipioa garapenerako politiketan Eusko Jaurlaritzaren jardun guztian, batik batik euskal enpresen internazionalizazioari dagokionez. OMAL behatokiak egin du ikerketa (Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia), eta ateratako ondorioak 2017an emango dira argitara.

- » Beste ikerketa bat ere hasi dugu, hau ere garapenerako politiken koherentziari buruz, baina oraingoan hiru foru-aldundien planak eta politikak aztertzekeo, giza garapen jasangarriaren ikuspegitik, horrelako planek hiru-garren herrialdeetan ere bai baitute eragina, eta ez soilik gure lurraldean. UNA aholkularitza-enpresa arduratuko da ikerketa hori egiteaz, eta 2017an hasiko du.



Komunikazioa

Gizarte-eraldaketarako komunikazioaren ikuspegitik ekiten diogu zeregin horri. Horretarako, injustiziak salatu eta pobrezia nahiz desberdintasunak eragiten dituzten arrazoiak jakinarazten ditugu herritarrengan elkartasunaren kultura sustatzeko:

- » Hainbat komunikazio-ekintza egin ditugu, hala nola prentsa-oharrak, hedabideei deialdiak, kale-ekimenak, prentsurrekoak, hedabideetan iritzi-sortzaile diren pertsonekin harremana... Eta horien guztien bidez, eragin handi samarra izan dugu hedabideetan, dela elkarrizketen bidez, dela gure ekintzen berri emanez, herritarrei erakusteko zenbaterainoko konpromisoa duten lankidetzarekin euskal instituzio nagusiek, ekimen publiko horien garrantzi itzela nabarmentzeko, eta pobrezia eta desberdintasunak sortzen dituzten eragileak eta injustiziak salatuzko, besteak beste.
- » *Radio Euskadiko Hágase la luz* eta *Seiko Urrea* saioetan kolaboratu dugu, gure erakundearen edo kide direnen iritzi-zutabeen bidez edota elkarrizketetan parte hartuz.
- » Lankidearen Egunaren harira (irailaren 18an), Hegoaldean dabiltzan euskal boluntarioei elkarrizketak egiteko aukera eskaini dizkiegu hedabideei.
- » Koordinakundeko kide diren erakundeek Hegoaldean dituzten proiektuei buruz online dugun artxibo fotografikoa eskaini diegu hedabideei, irudi egokiak izan ditzaten, *Hegoaldeari dagokionez* izeneko Irudien eta Mezuen Kodearen ikuspegitik.

- » Ekuadorren apirilean izandako lurrikararen harira, kide diren GGKEek egindako lanari buruzko informazioa bildu eta zabaldu dugu, herritarren elkartasuna bideratzeko eta hedabideen eskaerei erantzuteko.
- » Plataforma eta sare sozialetan egoteko ahalegina egiten jarraitzen dugu (Facebook, Twitter, Youtube, Vimeo, Ivoox eta Telegram), lankidetzan interesa duen komunitate digital bat sortzeko eta gizarte-eraldaketa eta sentsibilizazioa sustatzeko.
- » Webgunean etengabe eguneratu ditugu edukiak. Haren bidez, jakitera eman ditugu gure erakundeak antolatu edo babestutako jarduerak, kide diren GGKEenak, bai eta beste gizarte-mugimendu batzuenak ere. Eta bestelako informazio askoren berri ere eman dugu webgunearen bidez: lanpostuak, boluntariotza-eskaintzak, diru-laguntza publiko nahiz pribatuen deialdiak, artikulua eta estatistikak, jardunaldiak, kanpainak, iritziak...



Sare sozial hauen bidez ere jakin dezakezu gure jardueren berri: **Facebook, Twitter, Youtube, Vimeo, Ivoox eta Telegram**

- » Astero-astero, *Munduz mundu* buletin informatibo digitala bidali diegu harpidetuei, eta, haren bidez, asteko jardueren agenda ez ezik, era askotako informazioa helarazi diegu.
- » Ahotsa aldizkariaren 76, 77 eta 78. zenbakiak argitaratu ditugu. Elkartasunarekin, lankidetzarekin eta giza eskubideekin lotutako gaiak jorratu ditugu aldizkari horietan, eta, besteak beste, hainbat lekutan banatu dugu: ikastetxeak, instituzioak, liburutegiak, hedabideak, GGKEak, gizarte-mugimenduak, intereseko pertsona ospetsuak...



- » 2015eko Txostena eta Bideo Txostena ere argitaratu ditugu. Argitalpen hori funtsezkoa da, gardentasuna errazten duelako eta kontuak emateko bitartekoa delako ez ezik (eta hala dago jasota gure Jokabide Kodean), baita gure jardunaren berri emateko bidea zaizulako ere.
- » Gure erakundera informazio bila datozenei laguntzeko, grafismo bat egin dugu, gure erakundeak zer egitura duen eta zer lantalde dituen argi erakusteko.

Gure argitalpen guztiak webgunean daude



GGKEak eta sektorea indartu. Publikoari arreta

Batzar Nagusi bat egin dugu, eta 22 Lurralde Batzar (10 Araban, 4 Bizkaian, eta 8 Gipuzkoan). Batzar horietan, eta gainerako lantaldeetan, GGKEek parte hartze aktiboa izan dute.

Kide diren erakundeei informazio – eta aholkularitza-zerbitzua eskaini diegu lankidetzaz, diru-laguntzetarako deialdiez, enplegu-eskaintzez, prestakuntza-saioez, materialaren maileguaz, genero-berdintasunaz, komunikazioaz, eragin politiko eta sozialaz, eta administrazio-izapideez, besteak beste.

Pertsona partikularrak ere etortzen dira gura informazio eta aholku eske, GGKEetan boluntario-lanak egin nahian edota Hegoaldeko herrialdeetara joateko aukerez galdezka gehienbat, eta halakoei ere lagundu diegu. Horrelakoetarako, gainera, *Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi duzu? Nola parte hartu* txostena eguneratu eta berriro diseinatu dugu.

Gure egoitza, Araban, Gasteizko Simone de Beauvoir Elkarten Etxean dago; Bizkaian, Bilboko Boluntaren *Ganbara* elkargunean; eta Gipuzkoan, Donostiako lokal batean, beste erakunde batzuekin batera. Hiru hiriburuetan beste kolektibo batzuekin batera aritzen gara espazio berean, eta horrek aukera ematen digu askoz jende gehiagorekin harremana izateko, eta jende gehiagorengana iristeko. Gainera, Gasteizko Udalak utzitako lonja bat ere badaukagu, kide diren GGKEen materialak gordetzeko.



Lan-poltsa kudeatu dugu; materialak eta argitalpenak banatu, eta jasotako donazioak bideratu ditugu; eta sozialki irizpide arduratsuak dituzten enpresei buruzko informazioa bildu dugu, GGKEekin aritzen direnak eta kide diren erakundeei deskontu, hobari edota ekarpen solidarioak eskaintzen dietenak.

Arabaren sarean lan egiteko dokumentua eguneratu dugu. Honek, GGKEentzako intereseko informazioa biltzen du, lurralde honetan beren jardunak eta presentzia hobetu eta sustatu ditzaten.

GGKEen eta hiru lurraldeetako instituzioen artean bitartekari-lanak ere egin ditugu, erakundeek parte har zezaketen eremuetan, ekimenetan eta jardueretan babesa emanez eta bideratuz, eta elkarren arteko ezagutza eta koordinazioa sustatuz. Azpimarratzekoak dira, besteak beste, *Araiako azoka* (uztailean), *Musutruk* Agurainen (maiatzean), *Azaro solidarioa* Kuartangon, eta gaitzat emakumea eta lankidetz hartuta GGKEen erakusketak eta ikus-entzunezko proiektzioak Agurainen.

Gipuzkoan lan handia egin dugu erakunde, sare eta plataforma ugariak koordinatzen, zenbait alderditan lurralde deszentralizatu samarra baita, eta maiz askotan eskualde-mailan funtzionatzen duena. Alde horretatik, azpimarratzekoa da, esaterako, Gipuzkoan dauden *Zero pobreak* 5 plataformei jarraipena egiten eta haiek koordinatzen eta dinamizatzen egindako lana. Gainera, Gipuzkoako zenbait udalekin egiten dugun lana sustatzen jarraitu dugu, mugimendu asoziatibo oso aktiboko lurraldea baita.



3 NORTZUK GARA¹

GGKE kideak: 79



Gipuzkoa: 51

Bizkaia: 53

Araba: 34



Gobernu Batzordea

Lehendakaritza: Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. **Lehendakariordetza:** Fernando Vaquerizo, Mundubat; Eneko Callek, Bakea eta Duintasuna, ordezkatu du Asanblada Orokorretik aurrera. **Idazkaritza:** Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. **Diruzaintza:** Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. **Arabako ordezkaria:** Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. **Bizkaiko ordezkaria:** Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. **Gipuzkoako ordezkaria:** Iñaki Orube, Mugen Gaietik.

¹ 2016aren amaieran.

Lan-taldeak

Euskadi

Eragin Soziala eta Politikoa

Sofía Marroquín, Oxfam Intermón. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Jesús Ochoa eta Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Iñaki Orube, Mugen Gainetik. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. María del Mar Magallón, ALBOAN. Fernando Vaquerizo, Mundubat. Eva Silván, Save the Children. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. Iñaki San Miguel, Gosearen Aurkako Ekintza-Acción Contra el Hambre. María Fàbregas eta Mónica González, Bakerako Lankidetzeta Batzarra. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Rafa Ferrer eta Jaime Bernar, Zabalketa. Ricardo Fernández, medicusmundi bizkaia. Josu Urrutia, Mundukide. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Irune Martínez, Oscarte*. Bernardo García, Anesvad*.

Genero

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Sarai Martin, Mundubat. Isabel Uría, SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Patricia Hernández, ALBOAN. Nerea Uriarte, UNRWA Euskadi. Cristina Alba, KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Beatriz Plaza, Bakea eta Duintasuna. Sandra Losada, Bakerako Lankidetzeta Batzarra. Nora Ziarsolo, SETEM Hego Haizea.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen sartzeko eskaera berrien Jarraipen Batzordea

Itziar Hernández, Hegoa. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación; Gobernu Batzordea ordezkatzen. Idoia Aldama eta Irene Molero, Koordinazio orokorra.

* Erakunde hauek ez dira Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide. Hala ere, parte hartzen dute gure erakundeko lantalde batzuetan, gure erakundearen sartzeko eskaera egin ostean eta sarrera berrien Jarraipen Batzordeak lehen txostena aldekoa eman ondoren. Eskubide osoko erakunde kide gisa behin betiko sartuko dira, baldin eta bigarren txostena ere aldekoa jasotzen badute, eta kide diren gainerako erakundeek Batzar Nagusian aldeko erabakia hartzen badute.

Urrats bat gehiago hausnarketa prozesuaren talde eragilea

Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Eduardo García Langarica, medicusmundi álava/araba. Eneko Calle eta Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Pedro Ibarra, Baltistan Fundazioa. Josu Urrutia, Mundukide. Idoia Aldama eta Silvia de Gregorio, Talde Teknikoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia

Joana Etxano, Mugarik Gabe. Pilar Oronoz, Zabalketa. Javier González, Bakea eta Duintasuna. Álvaro González, ALBOAN. José Ignacio Alonso, Save the Children. Mónica Oyarzabal, PROCLADE YANAPAY. Amaia Iguaran, Ayuda Mas.

Araba

Eragin Soziala eta Politikoa

Evan Silván, Save the Children. Itziar Marquínez, medicusmundi álava/araba. Luis Royero, Manuel Iradier Elkartea Afrikanista. Ananda Abaigar, Adsis Fundazioa. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Iñaki San Miguel, Gosearen Aurkako Ekintza-Acción Contra el Hambre. Sandra Fernández eta Vanessa Cachafeiro, Mugarik Gabe.

Bizkaia

Eragin Soziala eta Politikoa

Sofía Marroquin, Oxfam Intermón. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutietako Cáritas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. María del Mar Magallón, ALBOAN. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Gonzalo Fernández, Bakea eta Duintasuna. Mónica Quintela, Farmacéuticos Mundi-Farmamundi. María Fàbregas eta Mónica González, Bakerako Lankidetzeta Batzarra. Rafa Ferrer eta Jaime Bernar, Zabalketa. Ricardo Fernández, medicusmundi bizkaia. Olatz Ecenarro, Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Irune Martínez, Oscarte*. Bernardo García, Anesvad*.

Gipuzkoa

Eragin Soziala eta Politikoa

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan. Xabier Martínez, Mugarik Gabe. Amaia Iturri, Egoaizia.

Gizarte Mobilizazioa eta Komunikazioa

Yoanna Amondarain, Adsis Fundazioa. Ane García, Behar Bidasoa. Ana Mocoroa, Elan Euskadi. Pello Sarasua, Interred Euskal Herria. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna. Idoia Azpilicueta, PROYDE-PROEGA.

Gipuzkoan dauden Zero Pobrezia 5 plataformetan parte hartzen duten erakundeak ez dira hemen sartzen.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza

Izaro Basurko, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Gema Hierro, medicumundi gipuzkoa. Patricia Ortiz de Zárate, Mugen Gaietik. Edurne Gallo, Calcuta Ondoan. Amaia Alvear, Emaús Gizarte Fundazioa. Nerea Aginako, Haurralde Fundazioa.

Erakundeetan partaidetza

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. Nerea Basterra, Oxfam Intermón.

Euskal Lankidetzaren Kontseilua

Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea; Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan, ordezkatu du Asanblada Orokorretik aurrera. Eva Silván, Save the Children. María del Mar Magallón, ALBOAN. Nerea Basterra, Oxfam Intermón. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutietako Cáritas. Ana María Arriola, Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna. María Viadero, Mugarik Gabe. Josu Urrutia, Mundukide. Agustín Ortiz, PROCLADE YANAPAY. Silvia Felipe, Mundubat.

Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseilua

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC cooperación y desarrollo. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.

Vitoria-Gasteizko Garapenerako Lankidetzaren Elkargunea

Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa.

Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Aholku Kontseilua

Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan

Talde Teknikoa

Irailera arte:

Idoia Aldama, Koordinazio orokorra. Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa. Erika Erkizia, Idazkaritza teknikoa. Irene Molero, Sareak. Natalia Rodríguez, Eragin soziala eta politikoa. Silvia de Gregorio, Ikerketa, formakuntza eta generoa. Jon González, Komunikazioa.

Urritik aurrera:

Irene Molero, Koordinazio orokorra. Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa. Erika Erkizia, Idazkaritza teknikoa. Izaro Basurko, Gizarte eraldaketarako hezkuntza eta sareak. Natalia Rodríguez, Eragin soziala eta politikoa. Silvia de Gregorio, Ikerketa, formakuntza eta generoa. Jon González, Komunikazioa. Maitane Cabeza, Gizarte eraldaketarako hezkuntza eta sareak.

GGKEak

Gosearen Aurkako Ekintza-
Acción Contra el Hambre
Acción Verapaz Euskadi
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna Euskadi
Bakerako Lankidetzeta Batzarra
Baltistan Fundazioa
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutietako Cáritas
Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Cáritas Gipuzkoa
Edex Centro de Recursos Comunitarios
Egoaizia
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Euskal Misoak
Emaús Gizarte Fundazioa
Euskadi-Cuba
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Farmacéuticos Mundi-Farmamundi
FISC cooperación y desarrollo

FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa
Mariaren Lagundia
Garabide
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza
Gizakien Lurra
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako
Ingenieritza (IC-LI)
Intered Euskal Herria
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Kainabera
KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo
Manos Unidas
Manuel Iradier Elkarte Afrikanista
medicusmundi álava/araba
medicusmundi bizkaia
medicusmundi gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu
Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektoak
Mugarik Gabeko Ekonomilariak
Mugen Gaietik

Mundu Bakean
Mundubat
Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikiak
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
Oxfam Intermón
Pausumedia
PROCLADE YANAPAY
PROSALUS
PROYDE PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskal Herria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi Solidaridad
para el Desarrollo y la Paz
Solidaridad Internacional-Nazioarteko
Elkartasuna
SOLIVE Solidaridad Vedruna
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
UNRWA Euskadi
Zabalketa

Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaziguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...

KONTU ARGIAK

2016ko kontuak BNFIX KLZ Auditores kanpoko enpresak ikuskatu ditu eta egiaztatu du leialki islatzen dutela Euskadiko GGKEen Koordinakundeko ondarea eta bere finantza egoera.

Informazio gehiago [webean](#)

Sarrerak 2016	Burutua (€)	%
Kuotak	29.179	7
Eusko Jaurjaritza	207.500	51
Arabako Foru Aldundia	15.000	4
Bizkaiko Foru Aldundia	34.000	8
Gipuzkoako Foru Aldundia	45.000	11
Bilboko Udala	18.000	4
Donostiako Udala	34.150	8
Gasteizko Udala	24.000	6
Jarduerengatik sarrerak	1.895	1
Guztizkoa	408.724	100

Gastuak 2016	Burutua (€)	%
Bulegoko materiala	7.884	2
Soldatak	282.074	69
Bidaiak	9.676	2
Kanpo zerbitzuak	96.428	24
Funtzionamendua	11.537	3
Guztizkoa	407.598	100

Eraitza (€)	1.125
--------------------	--------------



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

Araba

Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa
01001 **Vitoria-Gasteiz**
Tel. 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa
48005 **Bilbao**
Tel. 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea
20001 **Donostia**
Tel. 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

Laguntzaileak



GARAPENERAKO
LANMETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Alava



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteiz
Udala



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**
Lankidetz
Cooperación

Euskararekin bat

bidean

euskararen
bidean

bai

zerbitzua
euskaraz

Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.

Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak

